



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2009/10 denboraldia

26 ZK.DUN GUTUNA

EMKUMEZKOEN NAZIONAL MAILARAKO IGOERA-ALDIA

2010/11 denboraldian Euskadiko Futbol Federakundetik Emakumezkoen Nazional mailara igoko den taldea izendatzeko eta Batzar Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriari jarraiki, goian aipaturiko igoera-aldia antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

1. Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko emakumezkoen goreneko mailan lehenengo postuan sailkaturiko taldeak:

- BERRIOTXOA
- EIBAR
- GASTEIZ CUP

2. Txapelketa-sistema

Igoera aldia itzuli biko Liga-sistemaren bitartez jokatuko da.

3. Datak

Partidak ondoko egunetan jokatuko dira: maiatzak 3 eta ekainak 2, 6, 13, 16 eta 20.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Partiden Jardunaldiak eta Orduategiak

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori.

Partidak hasteko ordutegiak hurrengo tarteetan finkatuko dira

19.30 tik 20.00 ra	asteazken arratsaldean
16.30 tik 18.30 ra	larunbata arratsaldean
11.30 tik 12.30 ra	igande goizean
16.30 tik 18.30 ra	igande arratsaldean

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio (Fax 94-473.22.21- c. electrónico webmaster@eff-fvf.org ó web de EFF), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.

5. Jokalarien aldaketak

Partidetan, gehienez, bost aldaketa egin ahalko dira, gehienezko zazpi ordezkoren artean.

6. Berdinketak

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 99. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

.../..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Epaileak

Partidak zuzentzeko epaileak zelaiaren jabea den taldearen Lurralde Federakunde berekoak izango dira, eta gastuak partida antolatzen duen taldearen kontu izango dira.

8. Diziplina Batzordea

Aldi honetan parte hartzen duten taldeei zein horietako jokalaria, zuzendari nahiz buruei dagozkien diziplina arloko gorabeheretan ez da etenik egingo aldia hasterakoan, ondokoei dagokienez: zigorrak betetzea, arau-hausteetan berriro jaustea, nahiz bestelako ondorioak.

Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2010ko maiatzaren 25a



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

FASE DE ASCENSO A PRIMERA NACIONAL FEMENINA
EMAKUMEZKOEN NAZIONAL LEHEN MAILA
IGOERA-ALDIA

EGUTEGIA / CALENDARIO

MAIATZAREN 30AN / 30 DE MAYO

GASTEIZ C – BERRIOTXOA

EIBAR
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 2AN / 2 DE JUNIO

EIBAR – GASTEIZ C.

BERRIOTXOA
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 6AN/ 6 DE JUNIO

BERRIOTXOA – EIBAR

GASTEIZ C.
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 13AN / 13 DE JUNIO

BERRIOTXOA – GASTEIZ C.

EIBAR
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 16AN / 16 DE JUNIO

GASTEIZ C. – EIBAR

BERRIOTXOA
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 20AN / 20 DE JUNIO

EIBAR – BERRIOTXOA

GASTEIZ C.
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-O-